

Haurren heziketa pertsona baten esku gelditzen denean

Orain urte batzuk, pertsona batek bere seme-alabak bakarrik eta bakardadean hezteko zituen arrazoi nagusiak, alarguntasun goiztiarra edota bikotetik kanpo ematen ziren kausazko haurdunaldiak ziren. Hala ere, egun, bada aldatu den aldagai bat. Izan ere, “borondatez aukeratzeko” ahalbidea dago. Hau da, bikote izaeratik at seme-alaba hezteko hautuari heltzeko aukera. Orain adierazitako egoera hau, iraganean pentsaezina zen, eta egun, medikuntzan eman diren aurrerapenei esker (lagunduriko ugalketa kasu) eta legalki eman diren aldaketei esker (adopzioa, banaketa edota dibortzio kasuak esaterako), amatasuna eta aitatasuna bakarka gauzatzeko erraztasunak ematen dira.

“Kausazko” guraso bakarreko familia horietan, edota, egun ematen diren “aukeratutako” guraso bakarreko familia kasuetan, funtsezkoa da, errealitate hori bizi duten familia horiek, haurrak hezteko orduan, elementu zehatz batzuk aintzat hartzea eta zaintzea.

Guraso bakarreko familia baten egituraketak, ez du berez, zertan ona edo txarra izan behar, guztiz funtzionala izan daiteke. Are gehiago, ohiko familia egiturekin alderatuz, ez du zertan haurren autoestimarako negatiboagoa izan behar. Batez ere, familiako helduak, familiaren antolaketa, maila emozional, pertsonal, sozial, ekonomiko eta hezigarria, modu egokian garatzeko ardura hartzen badu.

Kontuan izan beharreko jarraibideak:

- Gogoratu seme-alabek helduengatik bideratuak, babestuak eta afektua jasotzea espero dutela. Adin txikikoek zure babesa behar dute.
- Helduen arazoak, seme-alabekin elkarbanatzeari edota seme-alabei aholku eskatzearen tentazioari uko egin behar diogu. Honako hau, gehiegizkoa izan daiteke oraindik heldutasun maila batera iritsi ez den adin txikiko batentzat. Zama gehiegi jartzea eta gehiegi babestea saihestu.
- Aita edo ama, autoritatea ezartzearen erantzulea da. Betiere, koherenteak eta justifikatuak diren arauen bitartez diziplina egoki bat mantentzen bada. Beraien portaera bideratuko duten arau argiak errazten zaizkien bitartean, seguru sentituko dira. Inprobisaziorik ez arauak ezartzerakoan.
- Ez pentsatu “helduak izanagatik” seme-alaben aurrean sentimenduak ezkutatu behar ditugunik. Kontrako jarrera hartu behar da, hau da, sentimenduen inguruan hitz egin behar diegu eta hauek justifikatu behar ditugu, seme-alabek ulertu ditzaten. Emozio errealak adierazi, beraien aldarteak ezagutzeko eta ezagutarazteko (tristezia, poztasuna, haserrea...). Kontuan izan, seme-alabak ezin ditugula kontsolatzeko irudia bezala kontenplatu. Finean, emozioak adieraztea litzateke. Modu horretan, beraien sentimenduak modu egoki batean adierazten eta kontrolatzen ikas dezakete.

- Ez bilakatu seme-alabak, heldu edota bikote kidearen ordezkari. Modu indibidual baten zaindu, bere ezaugarri eta nortasunaren arabera zaintza eman. Kontuan izan, haur, nerabe edota gazteengan independentzia eta autonomia sustatu behar dela.

Laburpena

Garrantzitsua da ezagutzea zein izan den guraso bakarreko familia baten parte izatera heltzeko bidea (aukeratua izan den edo ez). Izan ere bideak eragina izango du, egoera ekonomikoan, familia arteko harremanetan, inplikazio eta hezkuntza konpetentzia mailatan eta baita seme-alaben aspektu emozional eta sozialetan.

Ainhoa Manzano Fernández doktorea
Juan Luís Martín Ayala doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia